

DE BARCELONA A L'ILLA DEL TRESOR. JOAN MARGARITEN CRÓNICA ETA «RESTES D'AQUELL NAUFRAGI» LANEN IRAKURKETA KONPARATUA

Noemí Acedo Alonso

GRC Cos i Textualitat, Universitat Autònoma de Barcelona
noemiacedoalonso@gmail.com

Aipatzeko gomendioa || ACEDO ALONSO, Noemí (2013): "De Barcelona a l'illa del Tresor. Joan Margariten Crónica eta «Restes d'aquell naufragi» lanen irakurketa konparatua" [artikulu linean], 452°F. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 8, 93-107, [Konsulta data: dd/mm/aa], < http://www.452f.com/pdf/numero08/08_452f-mono-noemi-acedo-alonso-eu.pdf >

Ilustrazioa || Nadia Sanmartín

Itzulpena || Mikel Babiano

Artikulu || Jasota: 28/02/2012 | Komite zientifikoak onartuta: 11/11/2012 | Argitaratuta: 01/2013

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkatarizarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Artikulu honen xedea Joan Margariten *Crónica* liburuaren (1975ean argitaratua eta idazlearen lehendabiziko lanetakoa) eta *El primer frío* antologiaren (2004an argitaratua eta aurrekoaren berridazketa) arteko irakurketa konparatua proposatzea da. Bi liburuen artean igaro diren hogeitun urteetan idazlearen poetika aldatu egin da, artikulu honi izena ematen dion bidaia sinbolikoak argi uzten digun bezala: *De Barcelona a l'illa del Tresor* bilakaera horren lekukoa da, esperientziaren poesiatik bizipen *despertsonalizatu* eta zabalagoa topatzeko bilakaeraren lekukoa, hain zuzen ere.

Hitz-gakoak || Joan Margarit | antologia | berridazketa | sinbolismoa | despertsonalizazioa.

Abstract || This paper proposes a comparative reading between *Crónica*, one of the first books by Joan Margarit, published in 1975, and the rewriting of the same work presented in the later anthology *El primer frío*, from 2004. The time span of more than twenty years from one book to the other shows a significant poetic shift in his work. The title of this paper, *From Barcelona to l'illa del Tresor*, draws on the symbolic trip that led to that evolution, which shifts from a more empirical poetry to the search of a broader, more *impersonal* experience.

Keywords || Joan Margarit | anthology | re-writing | symbolism | depersonalization.

0. Sarrera

Borgesek kontakizun batean, Gustav Theodor alemanak irudikatzen du egunen batean liburutegi bat eraikiko duela, eta liburutegi horretan munduko liburu guztiak izango direla. Leku horretan tentu handiz gordeko dira —edo hori uste du berak— garai guztietako lan *handiak*: tratatu filosofikoak, eskuizkribuak, manifestu literarioak, saiakera zientifikoak, argitaragabeko zirriborroak... Eta, bere ustez, liburutegi horretan kritikak ahaztu dituen lanak ere egongo dira, *beste ahots batzuek* idatzi zituztenak, irakurleen eskuetara apenas iritsi zirenak, alegia. Ametsezko liburutegi horren azken apaletan oraindik idatzi ez diren liburuak daude, oraindik gorpuztu ez direnak. Kontakizunaren arabera, leku utopiko horretako arauak antzinako filosofiari buruzko lehen lanetan jasota daude: atomismoak, analisi konbinatorioak, zoriak eta tipografiak osatuko dituzte, beren arteko aukera posible anitzetan oinarrituta, munduko istorio guztiak. Proiektu hori Kurd Lasswitzek aurkeztu du, fantasiako kontakizunak biltzen dituen eta *Traumkristalle [Kristalezko ametsa]* izenburu esanguratsua duen liburu batean, liburutegi horren arkitekturaren hauskortasunaren — eta ezinezkotasunaren— erreferentzia gisa. Narratzailearen hitzetan, den-dena egongo da leku horretako apaletan:

la historia minuciosa del porvenir, *Los egipcios* de Esquilo, el número preciso de veces que las aguas de Ganges han reflejado el vuelo de un halcón, el secreto y verdadero nombre de Roma, la enciclopedia que hubiera edificado Novalis, mis sueños y entresueños en el alba del catorce de agosto de 1934, la demostración del teorema de Pierre Fermat... (Borges, 1999: 24).

Narratzaileak proposatzen duen zerrendari erreparatuz gero, pentsa genezake dena —norbaitek idatzi duena eta etorkizunean idatziko dena— liburutegi horretan dagoela, baina, egia esan, badago aipatzen ez den liburu mota bat: non daude antologiak?

Liburutegi horretan munduko poeta, idazle, filosofo, artista eta zientzialarien lanak badituzte, zer zentzu izango luke lanon antologiaren bidezko bikoizketa partzialak? Genero hori autore baten ibilbide profesionaleko lanik esanguratsuenen hautaketatzat jo ohi da. Beste hitz batzuetan, antologiak, neurri batean, *jatorrizko* liburu batera lotuta daude. Horregatik, pentsa genezake ez diotela sorturikoari berria den ezer gehitzen. Aitzitik, antologiak —non beti *beren* zentzua duten ahaztutako gauzak baitaude— ez dira autore jakin batek aurretiaz argitaratu laneko zati batzuen hautaketa edo inbentario hutsak. Antologiak sorkuntza-lanak ere badira, dagoeneko idatzitakoari buruz ikuspuntu berria eskaintzen dutenak. Antologia batean ageri diren poema edo kontakizunen testuingurua eta jatorrizko lanarena desberdinak dira, eta, hori dela medio, zentzu berria beregana dezakete. Antologiek Borgesek liburutegiko azken

apaletako liburuen funtzio bera dute nolabait: oraindik idatzi ez diren lanek, oraindik forma ulergarriak ez duten horiek, dagoeneko existitzen direnak (dagoeneko existitzen direnak irakurtzeko gure modua) aldatuko dituzte ezinbestean.

Beste hainbeste gertatzen da Joan Margaritek 2004an argitaratu zuen *El primer frío* antologiarekin. Liburuaren azalean azpítitulu gisa ageri dena, *Poesía escrita entre 1975 y 1995*, egia izango balitz, antologia honetan denbora tarte jakin horretan idatzitako poesia —edo horren zati bat— topatu beharko genuke. Baina antologiaren eta hautatutako poemak irakurketa konparatibotik ondoriozta dezakegu Joan Margaritek, bere lehendabiziko lanak berriro irakurtzeaz batera, etengabe berridazten dituela. Antologiaren lehendabiziko atalean, «Restes d'aquell naufragi» izenekoan, *Crónica* laneko —Margariten hirugarren liburua, 1975ean argitaratutakoa eta gaztelaniaz idatzia— hirurogeita bat poemetako lau ageri dira. Antologiaren berritasuna *Crónica* jotzen dugunean egiazta dezakegu, bertako poemak *El primer frío*koekin zerikusi gutxi edo inongo zerikusirik ez dutelako. Hortaz, badirudi *El primer frío* ez dela poema esanguratsuenak biltzera mugatzen —autoreak berak hitzaurrean azpimarratzen duen bezala, *boluntarioki* ahaztu ditu kritikaren sariren bat edo beste irabazi duten liburuak—, eta berak bere lana «desescriu» (Rovira, 2004) eta berridazten du, irakurketa kritikoa eta zuzenketa zorrotza aplikatzen dizkio. Beste arrazoi batzuen artean, *Crónica*ren eta *El primer frío*ren artean hogeitau urte igaro direlako, ibilbide poetikoaren eta hizkuntza literarioaren aldaketaren adierazgarri.

El primer frío antologiak proposatzen digun berridazketaren bitartez, Margariten lehendabiziko lana ezagutzeko aukera dugu, artean egituratzen ari zen ibilbide poetiko baten hasieran idatzitakoa —ordurako *Cantos para la coral de un hombre solo* 1963an argitaratu zuen arren—. Esan genezake hasiera hartako lau poema besterik ez dituela berreskuratu; izan ere, «no va arribar a canalitzar adequadament la seva energia creativa fins l'aparició del seu onzè recull en català, *Llum de pluja*, el 1987» (Abrams, 2005: 21). Sam Abramsen iritzia onetsiz gero, esan genezake Margaritek bere ibilbide poetikoa topatu zuela hizkuntza poetikoa aldatu zuenean, gaztelanitik katalanera igaro zenean, alegia, gaur egun ere bere lanak gaztelaniara itzultzeko joera dagoen arren, José Luis Morantek 2006an bi hizkuntzatan argitaratu zuen *Arquitecturas de la memoria* antologiak argi uzten digun bezala. Interesgarria da egiaztatzea antologia berri horretan *Crónica*ko poemak, *El primer frío*ren ere argitaratutakoak, ageri ez direla.

*El primer frío*ren proposatutako berridazketaren aldaketak poetika aldaketa baten adierazgarri dira, bere ibilbideko bilakaera baten adierazgarri, eta, nolabait, Joan Margariten poesia ezagutzeko modua ere izan daitezke. *El primer frío* irakurtzearen ondorioz egin

dugun aurkikuntza horrek, haren eta lehen «hito poético»-aren arteko aldeak —horrela izendatzen du *Crónica*, antologiaren hitzaurrean (2004: 9)—, artikulu honen eztabaidagaia alboratu du: esperientziaren poesiaren eta ni poetikoaren despertsonalizazioaren arteko gatazka. Luis García Monterok *Además* antologia berritzailearen bidez konpontzen du gatazka hori:

apostar por el realismo no significa creer en una copia espontánea de la naturaleza, sino el intento consciente de crear artificios con apariencia de realidad, crear las condiciones para que el lector pueda vivir el poema, reconocerse, identificarse con él (1994: 14).

Horrela, hamarkadaz hamarkada eztabaidatu izan den auzia laster batean konpontzen dugu: poesiaren zintzotasuna García Monterok zein Margaritek zenbait poematan duten aitortza-tonua «artificio estético de la naturalidad» (García, 1994: 11) besterik ez da. Beste hitz batzuetan, ez da beharrezkoa ni (auto)biografikoa idazketatik harago bilatzea: despertsonalizazioak edo *nortasunetik ihes egiteak* berdin jokatzen dute esperientziaren poesian zein poesia sinbolistan. Hori dela eta, hasiera batean aipagarriak ziren hitzak —Joan Margaritek honakoa onartzen dio Rosa Maria Piñoli elkarrizketa batean: «me siento cada vez más un poeta realista» (2005)—, orain, zenbait berrirakurketaren ostean, bizitzaren mendekoa den —edo ez den— poetikaren parte dira, poesia sinbolistarekin gertatzen den bezainbeste. Despertsonalizazioan oinarritutako jolas literarioa esperientziaren poesian ere topa dezakegu. Hori dela eta, ez zegoen konpondu beharreko gatazkarik.

1. Irakurketa konparatua: *De Barcelona a l'illa del Tresor*¹

Crónica lana Ocnos bilduman argitaratu zen 1975ean. Margaritek bi liburu idatzi zituen ordurako, gaur egun lortzea ia ezinezkoa den bi liburu. Beste hainbat idazlek bezala, gaztelaniaz idatziz ekin zion bere ibilbide literarioari, eta, geroago, betidanik familia giroan hitz egin zuen hizkuntza erabiliko (edo berreskuratuko) zuen: katalana. Elebitasun horri esker, Margaritek harrera ezin hobea izan du gure herrialdean zein hemendik kanpo, eta poeta batzuen errekonozimendua jaso du (Luis Antonio de Villena edo Luis García Monterorena, esate baterako). Gaztelaniatik katalanerako hizkuntza aldaketa 1980an gertatu zen; ez zen hasiera-hasieran gertatu, gaztelaniazko tradizio literarioa askoz sendagoa baitzen katalanekoa baino. Horixe bera esan zion Margaritek Zeneida Sardàri elkarrizketa batean. Hala eta guztiz ere, Dolors Ollerrek, Josep Carner eta Carles Ribarekin batera, «Poesia catalana del segle XX»-en aztertzen duen bezala, «entren a la poesia catalana les grans línies de la modernitat poètica» (1986: 89), sinbolismoari eta hermetismoari, *poesia puruari* erreferentzia

OHARRAK

1 | Artikulu honen bidez erakutsi nahi dudana eta atalaren izenburuak jasotzen duen ibilbidea Bartzelonan hasten da, Joan Margaritek hiriarri buruz egiten duen irudikapen poetikoan, eta *Isla del Tesoro* edo Altxorraren Uharteraino, *El primer frío* girotzeko toki magikoraino, hain zuzen ere, luzatzen da.

gisa. Francesc Parcerisas, Marta Pessarrodona edo Antoni Mari bezalako ahots berriei esker, «poesia absolutament contemporània i de gran estil» (Oller, 1986: 97) sortu zen. Gai honek azterketa zorrotzagoa mereziko luke, baina oso gaintetik besterik ez dugu hemen aipatzen. Une honetan hasi zen Margarit katalanez idazten, eta *Llum de pluja* argitaratzeaz batera, bere poetikak ildo berri bati ekin zion. Nolanahi ere den, *Crónica* «millor llibre en castellà de Margarit» (Gràcia, 1994: 98) dela esan genezake, gaur egun nekez topatuko duguna, idatzi zituen lehen lanak bezainbeste.

El primer fríoko hitzurrean, Margaritek honako hau dio: «de aquellos años, cualquier poema que no figure aquí preferiría que ya no apareciese nunca más en lugar alguno» (Margarit, 2004: 10). Hori da, beharbada, autoreak berak eskatuta, bere lanik goiztiarrenak ez berrargitaratzeko arrazoia. Izanak izan, interesgarria da *Crónica* iristeko Margariten poesia berrienaz baliatzea. *Crónica* liburuak bi atal desberdin ditu: lehenengoa, «Barcelona, fin de un estío», zortzi poemaz osaturikoa, eta bigarrena, *Crónica*, berrogeita hamahiruz osaturikoa. Lehendabizikoan lehenaldirako, haurtzarorako bidaia *sinboliko* baten abiapuntuan kokatzen du irakurlea. Eta bigarren atala, zortzigarren poeman —liburuaren beraren poetika ere izan litekeena— deskribatu bezala, hamar urteko isiltasunaren kronika da:

He pasado diez años sin hablar
y ésta es la crónica de aquel silencio:
hileras de palabras en la niebla,
reposado viaje hacia la ausencia.
El cenicero blanco se ha llenado
y las cenizas, grises mariposas,
se extienden por la mesa: ya la noche
ha dejado el pequeño bar vacío.
Salgo a la carretera y en el cielo
la oscuridad es el inmenso techo
sobre el trigal de luz de la ciudad.
Oigo aún el murmullo de mi infancia
con sus rostros de aire entre los árboles,
y, arrancando ramitas de los setos,
regreso lentamente al automóvil
bajo unas melancólicas estrellas,
con una hoja amarga entre los dientes
y un gran buey moribundo en mi memoria.
Reconozco en silencio los recuerdos
que empujan nuestra voz, igual que el viento
hace sonar un órgano en la noche
(1975: 18).

Lehenik eta behin, gure buruari galdetu beharko genioke zer zentzu duen kronika bat, «un libro en que se refieren los sucesos por orden del tiempo», kasu honetan, neurtizetan idazteak. Galdera horren erantzun posible bat topa genezake Pere Ballartek, Carlos Barralen

bi testuri buruz —*Memorias de infanciako zati bat eta Diecinueve figuras de mi historia civileko* «Fiesta en la plaza» poema—, *El contorno del poema* saiakeran egiten duen irakurketa konparatua. Bi testu horien bitartez agerian geratzen dira gertakari bat hitz lauz edo neurtitzetan gogora ekartzeak eragiten dituen ezberdintasunak, honako hau ahaztu gabe: «cualquier expresión verbal estiliza y transforma, en cierto sentido, el acontecimiento que describe» (Jakobson, Ballarten, 2005: 108). Hau da, oroitzapena, poesiaren bahetik igaro ostean, *beste* bihurtzen da, bestelakoa den zerbait. Esan nahi nukeena da prosaren bitartez «la exactitud de los acontecimientos» bilatu nahi dela eta neurtitzen bitartez, berriz, «la exactitud de la sensación» (Ballart, 2005: 101, 106). Horrenbestez, Margaritek haurtzaroa (fikzio bihurtu den ni poetikoa, zehatzagoak izate aldera) oroitzeko aukeratzen duen bitartekoa neurtitza da, eta horrekin emozio bat (bir)sortzea du xede, gertakari edo bizipen jakin batzuk ez ordenatzea. Are gehiago, bere eta Raquelen —poemetan maiz ageri den pertsonaia— arteko bizikidetzaren herriko haurtzaroaren aurrekoa da, eta, hitz lauz eta zorroztasunez idatzitako kronika izango balitz, desordena kronologiko hori ez litzateke onargarria. Garrantzitsuena ez da denbora nola igarotzen den erakustea, hura hitzetan gaitibatuta nola geratzen den adieraztea baizik. Lortzen ote duen beste kontu bat da.

Jordi Gràciaren ustez, erreferentzia sinbolikoko poetika ez da guztiz eraginkorra neurtitzen bidez islatu nahi den bizipenaz haraindi begiratzeko. Gainera, kontuan hartu behar dugu poema gehienak ni liriko horren memoriako leku garrantzitsuren baten irudiak direla.

Lehendabizikoan, esate baterako, hiriaren irudia deskribatzen du poetak, Bartzelonaren irudia, ni poetikoa errepide batetik urrundu ahala ageri dena. Esanguratsua da naturako elementuak gizakiak eraikitako elementu artifizialekin nahasten direla. Ikuspuntu horretatik, Bartzelona natura eta arkitektura tartekatzen dituen hiri ideala dela dirudi:

En esta dulce tarde de septiembre
la Escuela Superior de Arquitectura
es tan sólo un vestíbulo vacío
cruzado suavemente por el sol,
que ya se inclina sobre el horizonte
en las azules pistas de la tarde.
Abro grandes puertas de cristal
y en los grises peldaños de granito
el cielo y sus lejanas transparencias
extienden sobre mí como el naufragio
de una lujosa soledad de antaño.
Arranca lentamente el automóvil
y abandono las anchas avenidas,
asciendo por las calles con jardines
hasta la vieja, amada carretera

de los bosques de pinos y retamas,
con sus lejanas curvas suspendidas
como grandes balcones sin barandas
abiertos a las ocres amplitudes
de la ciudad, que bajo el sol poniente
no parece, lejana, haber cambiado
(2004: 11).

OHARRAK

2 | Lerro hauek *Crònicako*
bi poematik atera ditugu
(Margarit, 1975: 15 y 47).

Liburuan zehar egiazta dezakegun bezala, ahots liriko horrek leku ugari islatzen ditu: muinoko taberna, Bartzelonako portua, tren geltokia, Sarrià auzoa, Café de la Ópera, Rambla hiribidea, kanposantua, Montjuïc, Café Vienés, Ospitale Orokorra, barrualdeko herria, Escuela Nacional de Niños... Leku horiekiko erreferentziak liburu osoan zehar daude, eta ez dago horietako lekuren batean *girotuta* ez dagoen poemarik. Behin eta berriro errepikatze horren arrazoia ez da, akaso, hartzaroaren eta bizipenen kokalekuak islatzeko interes hutsa, bilaketa poetiko baten emaitza baizik. *El primer fríoren* hitzaurrean, poetak honako hau dio: «Cantamos al propio misterio. Queda por decidir desde dónde cantar, y esa es la búsqueda que cada poeta realiza a su manera [...]. El lugar desde el cual yo lo intento es un lugar en el tiempo» (2004: 12). Horren erantzuna da *Crònicako* lehen atala: «Barcelona, fin de un estío». Hortaz, bizitzaren denbora neurtitzen erritmoaren arabera finkatzeko asmoa susma daiteke.

Crònican erabiltzen den tonuak, abesten ari denarekiko ahots poetikoaren jarrerak, eragiten du, beharbada, bizipena, orotzapena, birsorkuntza lirikotik harago ez iristea. Jordi Gràciak alderatzen ditu Margariten lehen liburuak eta *Edat roja* zein *Els motius del llop* (biak ere *El primer fríon* berridatziak) eta honako hau dio: «ara encaixa al poema alguna cosa més que la verificació melancòlica de la memòria» (1994: 99). Tonua nostalgikoa da, malenkoniatsua eta ezkorra. «Con qué oscuras urgencias he añorado,/ciudad, tu triste lejanía», «Recuerdo lejanísimos inviernos,/cuando al alba mi madre se alejaba»². Dena iraganean idatzita dago (lehenaldiko aditzak erabiliz), eta, horrela, berreskuratu ezinezko bizipenak deskribatzen ditu poetak, memoriaren marra zehaztugabeen eta *Crònicako* poema guztietan ageri den ni liriko horren ahots nostalgikoaren bitartez soilik isla daitezkeen bizipenak. Aitzitik, *El primer fríon*, aditzak orainaldian, etorkizunean edo baldintzan daude. Tarteka iraganeko aditzak topa ditzakegu, baina tonua bestelakoa da, poemen aniztasuna handiagoa da, eta tonua «un problema de sinceridad, de llegar a creérselo, de encontrarle sentido» (García, 1994: 9) —azken batean, jarrera kontua— denez gero, aukera gehiago dago neurtitzen bitartez deskribatu bizipenak esperientzia bihurtzeko:

RÈQUIEM PER A UN ESPECTRE

He devorat tants anys la meva mort
que avui estic cansat de ser vençut

per la misèria del nostre amor.
Has sortit del passat a pas de llop.
Per què has vingut des del teu mar d'hivern?
No tornis, continua absent i ajuda'm
des d'on ja no et perdré: des de dins meu.
Mai més ningú no em tornarà a jutjar.
La ironia és el seny de la derrota
i jo ja no sóc res a aquest mercat.
(2004: 182)³

OHARRAK

3 | Poema hau *El primer frío*
(2004) antologiako *Edat roja*
ataletik atera dugu.

4-5 lerroek autore beraren bi poema-liburu gogorarazten dizkigute —*Els motius del llop* (1993) eta *Mar d'hivern* (1986)— eta, horren ondorioz, irakurleak poema hau ni poetikoak bere buruari zuzentzen dion bakarrizketa dramatiko gisa interpretatzen du. Nolabait, ni poetikoak jakin nahi du zergatik igaro ote duen hainbeste urte berriro bizi ezin duen garaia oroitzen, desengainu handienaren arrazoia izan den harremana oroitzen, eta bere burua behartzen du «aquest mercat»-etik (10. bertsoa) erretiratzera, literaturaren mundutik erretiratzera. Jarrera aldaketa da, hain zuzen ere, tonu aldaketa, egun «abrupte o sarcàstic, o tendre, o sentimental, o covard» (Gràcia, 1994: 101), oso kasu gutxitan malenkoniatsua, «Un naufragio poético de más de veinticinco años» (Margarit, 2004: 10) ostean hondoratzetik salbatzen duen itsasargia.

Margariten poesiako aldaketa nagusia, hizkuntza literarioa baino areago, *kontatzen duena* deskribatzeko tonua eta irakurlearekiko jarrera dira. Baina bada *El primer frío* liburu gogoangarri bihurtzen duen zerbait gehiago, *Crónica*ren kasuan ez bezala: *El primer frío*ko poemek haien arteko (inter)dependentzia bitxia dute, hots, ez dira poema autonomoak. Elementu batzuk zenbait poematan errepikatzen dira eta interpretazio jakinak dituzte, «pájaros» edo «mar» bezalako elementuekin gertatzen ez den bezala, horien kasuan Margaritek esanahi ezberdina ematen dizkielako liburu eta poemaren arabera; *Crónica*an ageri den «te»-a, esate baterako, sekuentzia liriko bereko atala da. Zehatzagoak izate aldera, hiru poematan ageri da:

Va quedando a lo lejos el estío
y en el pequeño bar de la colina
una taza de té al atardecer
tiene el sabor antiguo del otoño [...]
(2004: 12).

El sabor áspero del té, que humea
igual que un incensario entre mis manos,
evoca rostros desaparecidos
cuyo pasado es su presencia ahora, [...]
(2004: 13).

Es hermoso el crepúsculo, los pájaros
guardan el silencio entre los grandes pinos:
el tiempo de elegir ya se ha perdido
y en la taza vacía queda ahora

el limón oxidado por el té [...] (2004: 14).

Ez da kasualitatea elementu hori lehendabiziko atalean eta jarraian dauden hiru poematan agertzea. Horrek erakusten digu liburua, *L'ombra de l'altre marren* (1981) kasuan gertatzen den bezala, osotasun bateratu gisa idatzita dagoela; areago, «el conjunt (el poema) resta obert en tant que obra perfectible i, en certa manera, no acomplerta, que el lector pot arrodonir i, segons com, acabar» (Martí i Pol, 1981: 15). Horren bitartez azal dezakegu, beharbada, *Crònican* poema ezberdinak zirenak *El primer fríoko* «Restes d'aquell naufragi»-n poema bereko estrofak direla. Horren harira, aipatu lerro horiek «2 Collserola» poema berean jasota daude. Azken horren lehen estrofa gorago osorik aipatu poema da: «En esta dulce tarde de septiembre». Bartzelonako irudi gisa interpretatu genuena, Collsesola zen egiaz. Irakurleak ezin ditu *Crònicako* lekuak bereizi, poemek izenbururik ez dutelako, besteak beste.

Margaritek honako dio *Aiguafortsen* (1995) hitzaurrean: «Sempre he procurat que el títol —dins la limitació de la seva brevetat— faci referència a un contingut» (s.p.). *Crònican*, ordea, poemek ez dute ez zenbaki ez izenbururik. Beharbada ez zen posible izango poema guztietan eduki argi bati, eduki ezberdin bati, alegia, erreferentzia egitea, Martí i Polen hitzei esker —bere *L'ombra de l'altra mar* liburuaren hitzaurrean— ere ondorioztatu dugunez, liburuak batasun bat osatzen baitu eta poemek ez baitute guztizko autonomia erdiesten. Esanguratsua da jatorrizko hirurogei poematik gora dugula, eta *El primer fríon* lau topa ditzakegula. Are gehiago, poema horien izenburuek («1 Últimos ecos», «2 Collserola», «3 Cerdeña 548» eta «4 Madrid») eta zenbakitzeko moduek honako hau adierazten dute: lehenik eta behin, bere poesiaren xede den «lugar en el tiempo» topatzeko bilaketa, nolabait, bukatu egin dela. Bigarrenik, egiazko *Crónica* bat idazteko proiektua gorpuztu duela; izan ere, poemak kronologikoki ordenatuta daude. Ez da poemak idazteko data zehatzik ageri, baina ez naiz ari kronologia mota horri buruz, poemak edukiari buruz baizik. «1 Últimos ecos» poemak ni poetikoaren haurtzaroari buruzko *Crònicako* poemak jasotzen ditu. «2 Collserola»-k poetak Raquelekin duen maitasunezko istorioa deskribatzen du te-kikara baten irudiaren bitartez, hari kea darionetik limoia oxidatzen den arte. «3 Cerdeña 548» hiri horri eta bere bikotekidearekin batera bisitatu ohi zituen lekuei buruzkoa da. «4 Madrid»-en mintzagaia bakarrik igarotzen zituen «noches de hotel, esperas de ascensor» dira.

Hogei urte geroago berridatzitako *Crónica* honetan, denak du ordena eta zentzu berria. Poetak jatorrizko liburua laburtzen du, poema asko ezabatzen ditu, eta horietako asko —lerro guztiak mantendu gabe— unitate bereko estrofa bihurtzen dira. Poetika, argi eta garbi, aldatu

egin da, eta horrekin batera baita poetaren ahotsa, lengoia, gaiak eta tonua ere: «S’ha perdut el respecte a la franquesa moral i s’ha rebaixat el valor del lirisme vaporós, si voleu inquietant i enigmàtic, a favor de la paraula dita amb propòsits menys endogàmics i més desemmascaradors» (Gràcia, 1994: 99). Liburua ez da, dagoeneko, memoria zeharkatzeko bidaia, baina *Crònicaren* berridazketak zerikusi handiagoa du izenburuarekin jatorrizkoak baino.

«1 Últimos ecos» lehendabiziko lanean, hiru poema berridazten ditu poetak, *Crònicako* 39., 40. eta 41. orrialdetakoak, hain zuzen ere. Collserolari buruzkoan aipatu dugun jarduteko modu bera islatzen dute. Horrela, lehen bata bestearen atzetik ageri ziren hiru poema, poema bereko estrofa bihurtzen ditu poetak eta hori *Crònicako* lanen autonomia faltaren erakusgarri da. Esate baterako, hona hemen 39. orrialdeko poema zaharra:

Desciende, melancólico, el recuerdo
como la lluvia sobre el mar, y el aire
tiene el olor de un árbol rumoroso,
el inmenso eucaliptus cuya sombra
cubrió los mediodías de mi infancia. (v. 5)
El saco familiar de historias tristes
se abría en cada casa: personajes
que para aquellos niños fueron sólo
un nombre y un dolor en los retratos
explicados en tardes de domingo, (v. 10)
que sin la luz eléctrica acababan
oscurecidas como un gran desván.
Los hombres comenzaban sus trabajos:
con sus gastadas gabardinas
marchaban fatigados a su horario; (v. 15)
nuestra alegría se desparramaba
por todos los solares de los barrios,
entre hierbas y gatos, y silbidos
que se oían lejanos en la noche
mezclándose al llamado de las madres. (v. 20)
(Margarit, 1975: 39).

Ni lirikoak oroitzapen malenkoniatsua, «desciende, melancólico, el recuerdo», sentitzen du, poemaren tonu orokorraren erakusle, eta haurtzaroko garaiak deskribatzen dizkigu. Gerra zibilaren ondoriozko hildakoei erreferentzia egiteko korrelatu objektiboa darabil: «el saco familiar de historias tristes», desagertutako pertsonen zenbait argazki dituen zakua, hain zuzen ere. Erretratuekin batera, zakua korrelatu objektibo hori osatzen duten elementuetakoa da. Poemaren hirugarren atal izenda genezakeena (13-20 lerroak) irudi bat besterik ez da: umeez jolastu egiten dute nagusiak lanera doazen bitartean.

El primer fríon, poema hori askoz luzeagoa den poema baten lehen estrofa bihurtzen du poetak:

Aquella guerra había terminado.
 El saco familiar de historias tristes
 se abría en cada casa: personajes
 que para aquellos niños fueron sólo
 un nombre, un dolor vago en los retratos
 explicados en tardes de domingo
 sin luz eléctrica, que terminaban
 oscurecidas como un gran desván.
 Nuestra alegría se desparramaba
 por todos los solares de los barrios,
 entre hierbas y gatos, y silbidos
 que se oían lejanos en la noche
 mezclándose al llamado de las madres
 (2004: 19)

Alde batetik, poetak ezabatu egin ditu oroitzapena ni lirikora nola iristen den erakusten duten lehen lerroak. Ezabatze horrek poema idazteko aditz-denborekin zerikusia izan dezake, lehenaldiarekin, alegia. Gainera, «1 Últimos ecos» izenburuak iradokitzen digun bezala, argi dago poemek lehenaldiko egoerak gogoraraziko dituztela eta, hortaz, lehen bost lerroak erredundanteak izango lirateke. Bestetik, poetak langileen lerroak ezabatzen ditu, poema ez baita hor amaitzen, bi estrofa gehiago ditu, eta azkenekoan aitaren irudia ageri da, langile «fatigados» edo nekatu horien bitartez beharbada irudikatu nahi zuena. Aldaketak oso nabarmenak dira, baina, hala eta guztiz ere, ez dira *Llum de pluja*, *Aiguaforts*, *Joana* edo *Estació de França* azken liburuen maila poetikora iristen —zenbait lerro ezabatu arren, tonuak berdina izaten jarraitzen du—. Gainera, ezberdintasun txikiak daude honako lerroen artean:

que para aquellos niños fueron sólo
 un nombre y un dolor en los retratos
 explicados en tardes de domingo,
 que sin la luz eléctrica acababan
 oscurecidas como un gran desván.
 (*Crónica*, 1975: vv. 8-12)

que para aquellos niños fueron sólo
 un nombre, un dolor vago en los
 retratos
 explicados en tardes de domingo
 sin luz eléctrica, que terminaban
 oscurecidas como un gran desván.
 (*El primer frío*, 2004: vv. 4-8).

Kontua ez da ezberdintasun horien arteko analisi zehatza egitea, hori azterketa filologikoari baitagokio; aitzitik, poeta garaikideak lerroetan funtsezkoa ez dena ezabatzeko joera duela erakutsi nahi dut. Badirudi *Crónica*ko poemako 9. lerroko «y» juntagailuaren ordeztu bigarren bertsioan puntu eta koma jartzea aldaketa handia ez dela, baina lerroa desberdina da bi bertsioetan. Aldaketak lerroaren erdian etetera derrigortzen du irakurlea, eta poetak irudikatu nahi duen horri erreparatzera. Etenaldi horrek lerroen irakurketa desberdina izatea eragiten du —aldaketa berdina gertatzen da bigarren bertsioiko 7. lerroan—, eta, horrenbestez, lerrook ulertzeko modua ere desberdina izatea. Nolabait esateko, eta hori *El primer frío*ko bertsioiko azkenurreko lerroan egiazta daiteke, *Crónica*ko poemek prosarekiko zuten gertutasuna galtzen da.

Crònicako poemen eta *El primer frío*ko «Restes d'aquell naufragi»-n berridazten direnen arteko irakurketa konparatuak agerian uzten du liburu baten eta hurrengoaren arteko hogeitun gertatu den poetika aldaketa. Hala eta guztiz ere, berridazketa horrek ez ditu barne hartzen gai aldaketa (aldaketa baino areago, zabaltasuna), hizkuntza literarioaren aldaketa eta hizkuntza poetikoaren aldaketa, ahotsa erabiltzeko trebetasuna eta tonu poetikoen aniztasuna. *Crònicaren desidazketan* poetika aldaketa hori ez da, ordea, hain nabarmena.

Margaritek laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan idatzi duen poesian, *El primer frío* antologian ere ageri den poesia berean, ez dago lehenaldiko oroitzapenik eta protagonistek ez dituzte memoriaren lekuak bisitatzen. Oraingoan, honako hau da hizpide: «la condició tràgica essencial de la vida de l'home, del seu fracàs i del seu desengany» (Gràcia, 1994: 101). Hori dela eta, Jordi Juliàk «epigramas per al nou mil.leni» gisa definitzen ditu Margariten poemak; izan ere, ondorengo dira: «una observació enginyosa de la realitat quotidiana per tal de desvelar el que de tràgic, profund o etern, es pot arribar a mostrar en els fenòmens de cada dia» (2005: 25). Asko dira epifanien antzera irakur litezkeen poemak, irakurlearen begirada desautomatizatzea lortzen dutelako, terminoaren zentzu formalistan. Adibide gisa, poema hau:

POÉTICA

Al ir tras la belleza estarás solo:
Si la encuentras, se desvanece y deja
polvo de mariposa entre los dedos.
Perseguirás de nuevo el resplandor
que sabes dentro de ti, como el relámpago
que muestra fugazmente,
hasta el lejano horizonte, la realidad.
(2004: 195)

Denboraren joana argi uzten duen arren, urteen poderioz gertatzen den porrota, giza harremanen arteko gezurra, eta horri guztiari aurre egiteko gertuen duen errealitateari zentzu berria ematen dion arren, egon badago oraindik bere poemetan amets egin ahal izateko lekua. Poesia berrienean, Margaritek geografia poetiko berria aurkezten digu, *Crònican* bisitatu zituen leku haien guztien aukerak zabaltzen dituen:

AL LECTOR

Tuyas serán las mujeres que amé
y que nunca he perdido, pese al viento
cruel de los años, y tuyo el enigma
de la isla del tesoro.
Tus ojos serán míos un instante
y, a cambio de dejarte oír en los cristales

la lluvia que ahora escucho, y hacerte cómplice
de mi futuro, que tú podrás conocer,
impedirás que muera y, una tarde,
me dejarás ser tú en otra lluvia.
(2004: 233)

Lerro horien eta *Crónicako*en arteko aldea izugarria da. Paisaiaren irudikapen lirikoa edo berreskuratutako ezinezko iragana baino, irakurketa bakoitzean beste esanahi bat har dezakeen esperientziaren soslai abstraktua dugu begien aurrean. Tonu poetikoa *Crónic*an topatzen genuenaren oso bestelakoa da. Hori gutxi balitz, bigarren pertsonako izenordainak, inplezio mugagabeko gaitasuna duen leku hutsak, irakurlea lerroetan nolabait inplikatzeko eragiten du. Izenburutik abiatuta, poema *guri* eskainita dago. Interesgarria da egiaztatzea lekuen, *Crónic*an ageri diren espazioen zehaztapena norberaren arabera lekuz alda daitekeen «illa del tesoro»⁴ enigmatiko baten sinbolismo bihurtzen dela oraingoan. Zein lekuri buruz ari den aipatzen ez duenez gero, adierazlea, nolabait, hustu egiten da, eta, era berean, irakurketa bakoitzean eman nahi diogun zentzuarekin betetzen da.

Geografia berri horrek frogatzen du Joan Margaritek denboraren lerroan bere poemak idazteko leku berria topatu duela. Ezinezkoa da, beharbada, altxorraren uhartearen koordenatu horiek inon zehaztea, irudiaren, espazio utopikoaren jatorria literatura bera baita eta, hortaz, mito izaera duelako. Baina espazio hori poema baten mugetan deskubritze hutsak ahalbidetzen digu, irakurle gisa, leku horren jabe egitea, eta utopia hori giltzaperatzen gaituen gelaren sarrerarekin batera identifikatzea.

Margariten lan ugari buruzko artikulua labur honekin amaitzeko esango dugu, uharte honek *leku guztiak* izateko duen gaitasun *bitxiari* esker, merezi duela horrelakorik Borgesen irudizko liburutegiko azken apaletan edukitzea.

OHARRAK

4 | *Edat roja* liburuko poema homonimoak honako hau dio: «Mírala en los cristales. Hace tiempo/ que te alejabas porque ya temías/ fondear en el brillante aire sensual/ en el que se aventura tu recuerdo./ Mira por la ventana: sientes la música/ y el olor de café que, hospitalario,/ se extiende por la casa. Pero añoras/ el resplandor brumoso de la costa,/ el silencio de la isla, que ha vuelto,/ peligrosa y abrupta, esta mañana» (2004: 175).

Bibliografia

- ABRAMS, S. (2005): «El llamp que mostra la realitat», *Caràcters*, nº 30, 21.
- BALLART, P. (2005): *El contorn del poema*, Barcelona: Acantilado.
- BORGES, J. L. (1999): *Borges en Sur* (1931- 1980), Buenos Aires: Emecé.
- GARCÍA MONTERO, L. (2005): «Joan Margarit i *Els primers freds*», *Caràcters*, nº 30, 20.
- GRÀCIA, J. (1994): «De llengües i de poètiques. A propòsit de la trajectòria literària de Joan Margarit», *Revista de Catalunya*, nº 85, 97-106.
- JULIÀ, J. (2005): «Epigrames per al nou mil.leni», *Caràcters*, nº 30, 25.
- MARGARIT, J. (1975): *Crònica*, Barcelona: Ocnos.
- MARGARIT, J. (1985): *L'ordre del temps*, Barcelona: Edicions 62.
- MARGARIT, J. (1986): *Mar d'hivern*, Barcelona: Proa.
- MARGARIT, J. (1995): *Aiguaforts*, Barcelona: Columna.
- MARGARIT, J. (2004): *El primer frío*, Madrid: Visor.
- MARGARIT, J. (2006): *Arquitecturas de la memoria*, Madrid: Cátedra.
- MARTÍ I POL, M. (1981): prólogo a *L'ombra de l'altre mar*, Barcelona: Edicions 62, 5-15.
- OLLER, D. (1986): *La construcció del sentit*, Barcelona: Empúries.
- PARCERISAS, F. (1991): *L'objecte immediat*, Barcelona: Curial.
- PIÑOL, R. M. «Hay una ceremonia de autodestrucción entre los intelectuales que aspiran a no ser leídos», *El País*, [19/02/2005],
<http://www.ducros.biz/corpus/index.php?command=show_news&news_id=1502>.
- ROVIRA, P. (2004): «El poeta que riu», *Avui*, vol. X, nº 28-X, s.p.